



# Nola idatzi behar dut?



*Hondakin ez-organikoak eta ez-biodegradagarriak*

*Hondakin ezorganikoak eta ezbiodegradagarriak*

*Hondakin ez organikoak eta ez biodegradagarriak*



**Alegia, nola idatzi behar dira  
“ez + adjektiboa” elkarketak:  
elkarri lotuta, marra bidez  
elkarri lotuta ala bereiz?**

Euskaltzaindiak ez du berariaz arautu nola idatzi behar diren “ez+adjektiboa” elkarketak –marrarekin, marrarik gabe edo lotuta–, baina *Euskaltzaindiaren Hiztegian*, ez sarreran, 7. puntuan, marraz lotuta ageri dira adibide guztietan EZ partikula eta adjektiboa.

## 7. (Partikula). (Izenondo baten ezkerrean)

- Zortzi herritan egin nituen zortzi misio, **ez-laburrak**.
- Afari **ez-txarra** eta ohe garbia.
- Huts bat handia eta kalte bat **ez-txikia** guretzat.
- Esku **ez-garbiekin**.
- Agerian jarri du gorputz **ez-liraina**.
- Badira zenbait **ez-euskaldun** horrelakorik aditu nahi ez dutenak.



Halaber, *Euskaltzaindiaren Hiztegian*, honako sarrera hauek ditugu:

- ez-euklidear
- ez-gramatikal
- ez-konfesional
- ez-metal
- ez-organiko

Terminologia Batzordeak\* onartutako hiztegieta-ko terminoetan ere (EUSKALTERMen jasoak) marrarekin ageri dira gisa horretako elkarketak.

Hona zenbait adibide:

- bokal **ez**-judizial
- editatze **ez**-lineal
- erradiazio **ez**-ionizatzaile
- froga **ez**-zilegi
- gastu **ez**-kengarri
- hondakin **ez**-organiko
- iturri **ez**-puntual

Halaber, *Elhuyar* eta 5000 hiztegieta, eta *EHU*skaratuak corpusean jasotako testuetan, esaterako, marra bidez lotuta ageri dira aztergai ditugun elkarketa berriak.

ez-estandar	ez-euklidear	ez-eurozentriko	ez-fosforilatzaile	ez-galkor
ez-gaussiar	ez-gramatikal	ez-hilgarri	ez-ikoniko	ez-inbasibo
ez-indoeuropar	ez-inkrustatzaile	ez-isoklinal	ez-kognitibo	ez-konfesional
ez-konformista	ez-konpartimental	ez-kontsistente	ez-legitimo	ez-lineal
ez-material	ez-mendebaldar	ez-metabolizagarri	ez-metaliko	ez-mikorriziko
ez-murrizgarri	ez-organiko	ez-ortodoxo	ez-oxidatibo	ez-paralelo
ez-periodiko	ez-permisibo	ez-permisibo	ez-polar	ez-proteiko
ez-real (* <i>ez-erreal</i> )	ez-tribial	ez-zilegi	...	

**Marra erabiltzen da partizipioa adjektibo modura erabiltzen diren elkarketetan ere.**

hitz ez-hobetsiak

datu-fitxategi ez-automatizatua

hezkuntza ez-arautua

kondentsadore ez-polarizatua

hondar ez-korrelazionatua

jarduera ez-zergapetua

elkarrizketa ez-egitaratua

...

kolesterol ez-esterifikatua

informazio ez-partekatua

aldaketa ez-jarraitua

ezaugarri ez-markatua

farmako ez-ionizatua

informazio ez-partekatua

jarrera ez-estereotipatua

**Beste egitura hauek ere erabil daitezke:**

hitz ez-hobetsiak › hobetsi gabeko hitzak, hitz hobetsi gabeak.

**Eta bai izenlaguna oinarri duten elkarketetan ere.**

eutanasia ez-borondatezkoa

ez-hitzezko mezuak

metal ez-burdinazkoa

ekarpen ez-diruzkoa

...



## OHARRAK

- Loturik idazten dira *ezilkor, ezatsegin, ezberdin, ezegoki, ezezagun, ezgai, ezgauza, ezohiko*. (Salbuespenak dira.)
- Ez dezagun pentsa gaztelaniazko “ez+adjektiboa” egiturak euskaraz “ez+adjektiboa” egitura erabiliz bakarrik moldatu behar direnik. Badira euskaraz bestelako egiturak ere:
  - no creyente › fedegabe, sinesgabe
  - no de ley › legez besteko
  - accidente no laboral › lanekoa ez den istripua
  - acción no liberada › liberatu gabeko akzioa
  - aprovechamieto no computable › aprobetxamendu konputaezina
  - ensayo no drenado › saiakuntza drainatugabea
  - contratación no escrita › idatzi gabeko kontratua
  - organización no gubernamental › gobernuz kanpoko erakundea
  - ...

Adibideak [GAIKA](#) termino-biltegitik jasoak dira.